

PARRANDAN ERE, ESADAZU EUSKARAZ kanpainaren helburu nagusia hau da: jai giroan euskararen **ERABILERA** suspertzea.

Horretarako ezinbestekoa da identifikatzea zein zerbitzari (txosnetan eta hainbat tabernatan) den euskaldun eta euskaltzale. Hori elastiko gorri batekin egiten da. Kanpainari laguntzeko beste hainbat elementu banatzen da.

Kanpaina hau auzo guztietako jaietan eta herriko jai nagusietan garatuko da, hau da, urte osoan zeharreko ekimena da. Orain artekoetan, oso arrakasta ona izan du eta euskaren erabilerak gora egin du nabariki.

Informazio gehiagorako, hona hemen txosna edo taberna arduradunei bidaltzen zaien, hitzarmen-baldintza moduan.



PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Kanpaina honen helburua jai esparruetan **EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEA** da eta ez egindako material batzuk, nola edo hala, banatzea. Hortaz, helburua bete dadin inplikazioa eskatzen zaio parte hartu nahi duenari.

EMATEN DENA

- Kamiseta batzuk (KOTek diseinatuak) kanpainaren leloarekin, tabernari euskaldunak erraz identifikatzeko.
- Plastikozko edalontziak, kanpainaren leloarekin.
- Eranskailu (pegatina) batzuk euskaraz eskatzen duen bezeroari emateko.
- Salneurrien panelak txosna eta tabernen kanpoko aldeetan jartzeko. Jaiaren amaieran itzuli behar dira, beste batzuek erabil ditzaten.
- Azken hauekin batera, errotuladore berezi (eskuaz edo zapi batez ezabatzen direnak. Ezin da ohiko errotuladoreekin idatzi, materiala betiko galaraziko litzatekeelako) batzuk emango dira, panel horien gainean idazteko. Jaiaren amaieran itzuli behar dira, beste batzuek erabil ditzaten.

ESKATZEN DENA

- Taberna edo txosnetan zerbitzatzen dagoen/dauden pertsona bat edo batzuk euskaldun oso izatea.

- Kanpaina parte hartzea erabaki duen tabernariak, lanean dagoen bitartean, emandako kamiseta janztea.

